



## Nabarnizko Udala

U D A L A

### UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

#### I. XEDAPEN OROKORRAK.

##### 1. artikulua.

Udal honek, Lurralde Historikoko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri era exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo probetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exigitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

##### 2. artikulua.

Ordenantza hau udalaren eremu osoan aplikatuko da.

#### II. ZERGAGAIA.

##### 3. artikulua.

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo haren probetxamendu bereziak eratzen du zergagaia.

#### III. SUBJEKTU PASIBOA.

##### 4. artikulua.

1. Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 33. Artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa.

2. Administrazio Publikoak, autonomia elkarteak eta entitate lokalak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen probetxamenduetan eta, bereziki herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalarekin zer ikusia duten guztietan.


##### 5. artikulua.

Tasen ordainketa lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek egingo dute, eta horien ezean, probetxamenduaren onuradun direnek.

#### IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK.

##### 6. artikulua.

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.



## Nabarnizko Udala

□ □ □ □ □

### V. OINARRI EZARGARRIA.

#### 7. artikulua.

Oinarri ezargarría jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

### VI. KUOTA.

#### 8. artikulua.

1. Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

2. Erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa alde zurretik ordaindu. Kalteak konpontezinak badira, Udalak kalteordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Udalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalteordainak edo diru-itzulketak.

### VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA.

#### 9. artikulua.

1. Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hadiera ematen dion eskaera aurkezten denean; jarduketa ez da egingo edo espedientea ez da izenpidetuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

2. Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3. Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

### VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA.


#### 10. artikulua.

Udalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

### IX. TASEN KUDEAKETA.



## Nabarnizko Udala



### 11. artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

### X. AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau, eta bere Eranskinaren aldarapenak 2010eko abenduak 31n onartu ziren behin betikoz, eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean bere testu osoa publikatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

### ERANSKINA

A) epigrafea: Udalerrien lurreko zolu, teilatu-azpi eta lurpea norbanakoek edota beraien ustiaketa bereziagatiko tasa. Hondakin gordailuz, burdin-hesiz, aldamiroz, puntalez edota eustagez okupatzèa.

1. Metro karratu edo zatiko eta hilabete edo zatiko:

a) Azpitik pasatzea ostopatzen dutenak: 7,07 euro.

b) Azpitik pasatzen uzten dutenak: 4,71 euro.

B) epigrafea: Jai herrikietako txosnagatik tasa.

Ezarritako tokiak adjudikatzeko sorteo sistema erabiliko da, Udalak kasu bakoitzerako erabaki dezan oinarri eta baldintzen arabera egingo da sortea.

Txosnek okupaturiko m<sup>2</sup> bakoitzeko:

- m<sup>2</sup> edo zati bakoitzeko eta eguneko: 5,35 euro.